

BERTSO LARRIA

GALDER PEREZ Euskera

Personajes:

IÑAKI RIKARTE

SUSANA SOLETO

ITZIAR REKALDE

JOSE CRUZ GURRUTXAGA

Bost ataletan banatutako irrati-antzerkia

I. ATALA

KARETA ETA SINTONIA

AHOTSA: Bertso larria, lehenengo atala.

IRATZARGAILU EFEKTUA

NESTOR: *(Erdi lo oraindik.)* Mmmm... Egun on. Egun on, maitea.

KARMELE: *(Oso hotz.)* Egun on, Nestor.

NESTOR: *(Alai agertu nahirik.)* E, zer duzu? Gaizki egin duzu lo?

KARMELE: Bai.

NESTOR: Lan kontuak buruan dantzan berriz ere?

KARMELE: Ez. Amesgaiztoa izan dut.

NESTOR: A, hori da!

KARMELE: Hori? Zuri bost, ala?

NESTOR: Tira, Karmele, gure alabari esaten dizkiogunak esan behar al dizkizut zuri ere? Lasai, polita, ez da ezer gertatzen; hemen gaude, zurekin...

KARMELE: Ez da edonolako ametsa izan. Hileta-autoa errepide luzean, tulipan horiz inguratutako bigarren mailako errepide galduan.

NESTOR: Irudi polita da; kotxe beltza hori koloreko lore artean.

KARMELE: Ni neu nintzen hileta autoan etzanda zihoana.

NESTOR: Ui, ui, ui... Hobe gosaria prestatzen badut! Tostada goxoak egingo dizkizut, e?

KARMELE: Ezin dut gosaldu.

NESTOR: Horren jota utzi al zaitu ametsak?

KARMELE: Analisiak egin behar ditut, eta baraurik joan behar da.

NESTOR: Egia da, ahaztu egin zait.

KARMELE: Eramango duzu Ainara eskolara? Gosaldu gabe indar gabe sentituko naiz. Nahiago dut zuzenean anbulatoriora joan.

NESTOR: Neuk eramango dut, lasai. (*Urrunetik.*) Ainara!

KARMELE: Hileta-autoan etzanda ni nindoan, abesten.

TRANTSIZIOKO MUSIKA + KAFETEGI EFEKTUA

ANA: Ez dut sekula ulertuko, zertarako analisiak egin? Osasuntsu nahi bagaituzte, hobe lukete lan karga gutxiago bidaliko baligute. Orduan bai biziko ginateke osasuntsu, ez duzu uste?

KARMELE: Bai. Gainera, urtez urte okerretik okerrera goaz. Lau kilo loditu naiz eta elektroak gaizki eman dit.

ANA: Ene! Zerbait larria?

KARMELE: Ez dakit, ez omen da larria, ez. **ANA:** Ai, Karmele, estresaren ondorioak, neska!

KARMELE: Eta urteak, Ana, urteak! Adinak ez du barkatzen. Kar- kar!

ANA: Ai, neska, ezta amonak bagina ere! Egiteko asko dugu oraindik.

KARMELE: Berrogei urterekin hasten da bizitzaren bigarren agerraldia.

ANA: Hara, gure Karmele, beti bezain baikor!

KARMELE: Ez da horrela, ala?

ANA: Abentura asko bizi behar dugu oraindik.

KARMELE: Bizitzeko abentura berriak, zertarako? Hainbeste dira bukatu gabekoak...

ANA: Zer diozu?

KARMELE: Urteak pasatu eta gero ondo itxi gabeko kontuek beldurra ematen didate; bukatu gabeko istorioak aurrera bidea oztopatzen geratu zaizkit.

ANA: Eta nori ez?

KARMELE: Ondo itxi gabeko ateak behar bezala itxi nahi nituzke. **ANA:** Aurrera begiratu behar da, Karmele. Bizitzak sorpresa ederrak ditu guretzat gordeta oraindik, ziur.

KARMELE: Sorpresa ederra gaur bulegoan izango duguna, erredakzio-buru berria!

ANA: Zenbat apustu aurrekoa on egiten duela? **KARMELE:** Horrela izan ohi da beti.

SAKELAKO TELEFONOAREN EFEKTUA

KARMELE: (*Erantzuten.*) Bai, nor da?

AHOTS MISTERIOTSUA TELEFONOZ: Ez du axola nor naizen.

KARMELE: Barkatu?

AHOTS MISTERIOTSUA TELEFONOZ: Nor nintzen, baizik.

KARMELE: Nor da?

AHOTS MISTERIOTSUA TELEFONOZ: Karmele Arruti, zer moduz? Aspaldiko.

KARMELE: Nor zara?

AHOTS MISTERIOTSUA TELEFONOZ: Aspaldiko laguna. Ala ezaguna.

KARMELE: Zer nahi duzu? Nor zara?

AHOTS MISTERIOTSUA TELEFONOZ: Galdera horiei erantzuteko zergatik ez zatoz nigana? Bihar, arratsaldeko bostetan, geltoki ondoan, Errekabide kaleko bigarreanean. Azken solairua.

KARMELE: Baina...

AHOTS MISTERIOTSUA TELEFONOZ: Bihar bostetan, Karmele. Errekabide kaleko bigarreanean. Azken solairua.

ATAL BUKAERAREN MUSIKA

2. ATALA

KARETA

AHOTSA: Aurreko atalean.

AHOTS MISTERIOTSUA TELEFONOZ: Karmele Arruti, zer moduz? Aspaldiko.

KARMELE: Nor zara?

AHOTS MISTERIOTSUA TELEFONOZ: Aspaldiko laguna. Ala ezaguna.

KARMELE: Zer nahi duzu? Nor zara?

AHOTS MISTERIOTSUA TELEFONOZ: Galdera horiei erantzuteko zergatik ez zatoz nigana? Bihar, arratsaldeko bostetan, geltoki ondoan, Errekabide kaleko bigarrenean. Azken solairua.

SINTONIA

AHOTSA: Bertso larria, bigarren atala.

SINTONIA + GOSARIKO SOINUAK

NESTOR: Aizu, maitea, urtebetetze oparirako zer nahi duzun ez didazu oraindik esan.

KARMELE: Ai, Nestor, ez daukat urtebetetze ospakizunetarako gogorik.

NESTOR: Orduan ez didazu pistarik emango? Ondo da! Ba orduan badakit zer oparituko dizudan.

KARMELE: Zertarako galdetzen didazu, bada?

NESTOR: Kapritxo berezirik bazenu, jakiteko...

KARMELE: Ba ez, ez dago ezer.

NESTOR: Bertso-txapelketako finalerako sarrerak.

KARMELE: Ezta okurritu ere!

NESTOR: Kar-kar! Aizu, zer moduz zuen erredakzio-buru berri hori?

KARMELE: Unibertsitatetik atera berri den neska ile-hori eta titi ederdun horietako bat.

NESTOR: Eskarmentu handiko profesionala, hortaz, kar-kar!

KARMELE: Ikusten? Berrogei urte betetzen ditudanean betiko baztertuko naute, gaztetasuna eta edertasuna baloratzen dira soilik. Hau nazka!

NESTOR: Niretzat ederrena izango zara beti.

KARMELE: Aizu, Nestor, joango al zara Ainararen bila eskolara? Zera, bilera bat daukat, bostetan hain justu, eta...

NESTOR: Neure kontu.

TRANTSIZIOKO MUSIKA + ERREDAKZIOKO SOINUA

ANA: Karmele, baina burutik eginda zaude? Nola joango zara zita horretara? Ez dakizu nor den!

KARMELE: Nola ez naiz joango ba?

ANA: Eta zororen bat bada, edo psikopata edo, edo zer dakit nik?

KARMELE: Baita zera ere! Faborez, Ana! Gure lanbideak gehiegi kutsatu zaitu, kar-kar.

ANA: Nik ez dit inongo graziarik aurkitzen.

KARMELE: Joan beharra daukat. Ahotsa ezaguna egin zitzaidan, gainera.

ANA: Zurekin joango naiz. **KARMELE:** Ezta pentsatu ere.

ANA: Eta alaba? Bere bila joan behar duzu ordu horretan eskolara.

KARMELE: Nestor joango da. **ANA:** Zorionekoa zara, Karmele.

KARMELE: Zorionekoa ni, zergatik?

ANA: Zutaz arduratzen den norbait duzulako aldamenean.

KARMELE: Bere buruaz arduratzen den norbait daukat aldamenean eta berak, ondo bizitzeko, ni ondo egotea behar du, besterik gabe.

ANA: Ene, ene, erabat nahastuta zaude, Karmele! Horrenbeste aztoratzen al zaitu berrogei urte betetzeak?

KARMELE: Mesede bat egingo didazu? ANA: Horixe.

KARMELE: Ez didazu zertan behin eta berriz urtebetetzea gogoratu behar, ados?

ANA: Bai, bai...

TRANTSIZIOKO MUSIKA + TREN EFEKTUA

IRRATI AHOTSA: Arratsaldeko bostak izateko minutu gutxi falta da...

TREN EFEKTUA + ESKAILERAK GORA

AHOTS MISTERIOTSUA REVERRAREKIN: Arratsaldeko bostetan, geltoki ondoan, Errekabide kaleko bigarreanean. Azken solairua.

TXIRRINA ZAHAR BATEN EFEKTUA

KARMELE: Kaixo?

ATEAN KOLPEAK EFEKTUA

KARMELE: Bai?

ATE ZAHARRA IREKITZEAREN EFEKTUA + PAUSOAK

KARMELE: Kaixo? Ba al dago inor? Bai? Zera... Karmele naiz, Karmele Arruti... Kaixo?

AHOTS MISTERIOTSUA: *(Kantuan.)*

Garelako lagunak eta elkar maite, adiskide zaharrak gabela diote;
baina zaharragorik

KARMELE: (*Izututa.*) Ez! Ez! Baina zer da hau?

PAUSOAK KORRIKA + ATEA IXTEAREN EFEKTUA

ATAL BUKAERAREN MUSIKA

3. ATALA

KARETA

AHOTSA: Aurreko atalean.

ATE ZAHARRA IREKITZEAREN EFEKTUA + PAUSOAK

KARMELE: Kaixo? Ba al dago inor? Bai? Zera... Karmele naiz, Karmele Arruti... Kaixo?

AHOTS MISTERIOTSUA: (*Kantuan.*)

Garelako lagunak eta elkar maite, adiskide zaharrak garela diote;
baina zaharragorik

KARMELE: Ez! Ez! Baina zer da hau?

PAUSOAK KORRIKA + ATEA IXTEAREN EFEKTUA SINTONIA

AHOTSA: Bertso larria, hirugarren atala.

SINTONIA + TELEFONO EFEKTUA

ANA TELEFONOZ: Karmele!

KARMELE: (*Urduri.*) Ana, oraintxe atera naiz etxe horretatik.

ANA TELEFONOZ: Eta?

KARMELE: Ez dakit, oso arraroa izan da dena...

ANA TELEFONOZ: Baina zer zen? Nor zen?

KARMELE: Ez dakit, sartu naiz eta gortina baten atzean estalita zegoen, gizon bat,
uste dut, beno, kontua da bertsotan hasi dela...

ANA TELEFONOZ: Bertsotan? Ai, ene! Norbaitek adarra jo nahi dizu! Nori eta zuri
bertsotan? Kar-kar. Txantxa bat da dena!

KARMELE: Ez, ez, ez diot broma tankerarik ikusi. **ANA TELEFONOZ:** Eta? Nor zen?

KARMELE: Ez dakit, korrika atera naiz handik, ikaratuta. Beno, ez dakit, bera...

ANA TELEFONOZ: Ala, ala, orain ahaztu txantxa hori eta hobe erredakziora lehen baino lehen etortzen bazara. Gure nagusi berriak zugatik galdetu du.

KARMELE: Ez, ez noa.

ANA TELEFONOZ: Baina, Karmele!

KARMELE: Egidazu mesedea, asmatuko duzu zer edo zer. Etxetik bidaliko dut nire pieza.

TRANTSIZIOKO MUSIKA + ORDENAGAILUAN IDAZTEN SOINUA

NESTOR: Atsegin dut zu etxean lanean aritzea.

KARMELE: *(Lehor.)* Oso ondo.

NESTOR: Eta? Zer nahi duzu afaltzeko?

KARMELE: Ezer ez.

NESTOR: Antxoak erosi ditut.

KARMELE: Oso ondo.

NESTOR: Ondo zaude, Karmele?

KARMELE: Oso ondo.

TRANTSIZIOKO MUSIKA + TELEFONO SOINUA

ANA TELEFONOZ: Karmele, erredakzioan dena kontrolpean.

KARMELE: Eskerrik asko, Ana.

ANA TELEFONOZ: Eta zu, zer moduz zaude?

KARMELE: Ahots hori... eta bertso hori ezin burutik kendu.

ANA TELEFONUZ: Ba orain telebistan ergelkeriaren bat ikusi. Hori da burmuina hutsik edukitzeko errezetarik onena.

KARMELE: Bai, bai...

ANA TELEFONUZ: Bidali duzu pieza? **KARMELE:** Bai...

ANA TELEFONUZ: Oso ondo. Orain afaldu eta piztu telebista; batzuetan ergel izatea da aukera errazena.

TRANTSIZIOKO MUSIKA + AFARI SOINUAK

NESTOR: Hemen denboraldiko antxoarik goxoenak.

KARMELE: Ez naiz gose Nestor.

NESTOR: Neronek jango ditut denak ba!

KARMELE: Eta Ainara?

NESTOR: Oheratu berri dut. (*Isilunea.*) Zer duzu? Telefonoari begira eta begira ari zara etengabe.

KARMELE: Ezer ez... dei baten zain nago.

NESTOR: Lanekoa?

KARMELE: Lan kontuak... bai.

NESTOR: Edizioa itxiko zuten dagoeneko, bada.

KARMELE: Bai, zera, baina... beste edozer da.

NESTOR: Beste edozer.

KARMELE: Hori da.

NESTOR: Zoragarri daude antxoak, dastatu beharko zenituzke.

KARMELE: Ez, eskerrik asko.

NESTOR: Serioegi hartu duzu zure kiloen kontu hori. (*Isilunea.*) Tira, irratia jarriko dut.

AHOTS MISTERIOTSUA IRRATIZ: (*Kantuan.*)

...adiskide zaharrak garela diote;

baina zaharragorik nonbait badaiteke, guk elkar ikusirik,

KARMELE: (*Lekuz kanpo oihuka.*) Itzali irrati hori!

(Irratia itzali egiten da.)

NESTOR: Zer duzu? Zer gertatzen da?

KARMELE: Ezer ez, ezer ez. Zera... ohera noa.

ATAL BUKAERAREN MUSIKA

4. ATALA

KARETA

AHOTSA: Aurreko atalean.

AHOTS MISTERIOTSUA IRRATIZ: *(Kantuan.)*

...adiskide zaharrak garela diote;
baina zaharragorik
nonbait badaiteke, guk elkar ikusirik,

KARMELE: *(Lekuz kanpo oihuka.)* Itzali irrati hori!

(Irratia itzali egiten da.)

NESTOR: Zer duzu, maitea? Zer gertatzen da? **KARMELE:** Ezer ez, ezer ez. Zera...
ohera noa.

SINTONIA

AHOTSA: Bertso larria, laugarren atala.

SINTONIA + GOSARI SOINUAK

NESTOR: Egun on, maitea.

KARMELE: Egun on.

NESTOR: Zukua egin dut. Eta kafea ere eginda dago.

KARMELE: Eskerrik asko.

NESTOR: Zer moduz egin duzu lo?

KARMELE: Ondo.

NESTOR: Ez duzu aurpegi onik, bada. *(Isilunea.)* Karmele, ondo zaude? *(Isilunea.)*
Arraro xamar zaude azken egun hauetan.

KARMELE: Ondo nago.

NESTOR: Ez, ez zaude ondo. Zer duzun jakin nahi nuke, besterik ez.

KARMELE: Ez zaitez astun jarri faborez.

NESTOR: Ondo da, ondo. Ainara eramango dut eskolara lasaiago ibil zaitezten.
(*Isilunea.*) Beno ba, gero arte.

KARMELE: Agur, bai.

NESTOR: (*Urrunetik.*) Ainara! Goazen! Eskolara eramango zaitu aitatzok.

ATEA IXTEAREN EFEKTUA + TELEFONOA MARKATZEN

AHOTS MISTERIOTSUA TELEFONOZ: Hara! Karmele, Karmele...

KARMELE: Berriz ikusi nahi zaitut.

AHOTS MISTERIOTSUA TELEFONOZ: Zure deiaren zain nengoan.

KARMELE: Itzuliko naiz berriz.

AHOTS MISTERIOTSUA TELEFONOZ: Nola?

KARMELE: Atzo bezala, arratsaldeko bostetan.

AHOTS MISTERIOTSUA TELEFONOZ: Ez, zatoz oraintxe bertan.

KARMELE: Orain? Orain lanera joan beharra daukat.

AHOTS MISTERIOTSUA TELEFONOZ: Benetan ikusi nahi banauzu, zatoz oraintxe bertan.

TRANTSIZIOKO MUSIKA

ANA TELEFONOZ: Eta zer esango diot nagusi berriari, Karmele? Aitzakiak agortu zaizkit.

KARMELE: Tira, Ana, onena izan zara beti gezurrak asmatzen.

ANA TELEFONOZ: *(Haserre.)* Eta zu, Karmele? Benetan kezkatzen hasia bainaiz zurekin, zertan ari zara benetan?

KARMELE: Esan dizut, joan beharra daukat.

ANA TELEFONOZ: Beharra? Zure eginbeharra hementxe dago, erredakzioan, ez da ezezagun bati egin behar diozun bisita eroa.

KARMELE: Ana, eskerrik asko. Beste bat zor dizut.

ANA TELEFONOZ: Oso arduratuta geratzen naiz, Karmele, oso.

TRANTSIZIOKO MUSIKA + TREN EFEKTUA

ANA TELEFONOZ: Nestor, Ana naiz. Karmelerekin kezkatuta nago.

TREN EFEKTUA + ESKAILERAK GORA

NESTOR TELEFONOZ: Nik ere arraro sumatu dut egunotan.

TXIRRINA ZAHAR BATEN EFEKTUA ETA ATEAN KOLPEAK

KARMELE: Kaixo! Hemen nago.

ATE ZAHARRA IREKITZEAREN EFEKTUA + PAUSOAK

AHOTS MISTERIOTSUA: Etorri zara azkenean.

KARMELE: Loreak ekarri ditut, tulipan horiak.

AHOTS MISTERIOTSUA: Tulipanak? Amsterdamera gaztetan eginiko bidaiak gogora ekarri nahi, ala?

KARMELE: Ez, amets bat.

AHOTS MISTERIOTSUA: Ametsa. Amets egitea ederra zen, ezta?

KARMELE: Ez, ordea, amesgaiztoak. Zergatik ez zara gortinaren

atzetik ateratzen?

AHOTS MISTERIOTSUA: Zure amesgaiztoa al naiz?

GORTINA IREKITZEAREN EFEKTUA + PAUSOAK

KARMELE: Banekien zu zinela!

ATAL BUKAERAREN MUSIKA

5. ATALA

KARETA

AHOTSA: Aurreko atalean.

ANA TELEFONUZ: Nestor, Ana naiz. Karmelerekin kezkatuta nago.

TREN EFEKTUA + ESKAILERAK GORA

NESTOR TELEFONUZ: Nik ere arraro sumatu dut egunotan.

TXIRRINA ZAHAR BATEN EFEKTUA ETA ATEAN KOLPEAK

KARMELE: Kaixo! Hemen nago.

GORTINA IREKITZEAREN EFEKTUA + PAUSOAK

KARMELE: Banekien zu zinela!

SINTONIA

AHOTSA: Bertso larria, bosgarren eta azken atala.

URRUNETIK PASATZEN DEN TRENAREN EFEKTUA

MATTIN (AHOTS MISTERIOTSUA ZENA): Zer uste zenuen, mamua nintzela, ala?

KARMELE: Neure iraganeko mamua bazara, behintzat.

MATTIN: *(Kantuan.)*

Garelako lagunak

eta elkar maite, adiskide zaharrak garela diote;

baina zaharragorik nonbait badaiteke, guk elkar ikusirik,

lehenengoz nik uste, aurten beteko ditu hemeretzi urte.

KARMELE: Mattin Zulaika, aurreko mende bukaerako bertsolaritza berriaren promesa.

MATTIN: Karmele Arruti, bere luma finaz bertsolari bat hondoratuta arrakasta lortu zuen kazetaria.

KARMELE: Hara, Mattin...

MATTIN: Hemen aurkitu beharrean, nahiago zenuke artzain joan izan banintz, urrun, oso urrun, ezta?

KARMELE: Mattin, denbora asko pasatu da eta...

MATTIN: Bai, ez gara aspaldian egon elkarrekin, hurbilago bazintuzket, banuke atsegin.

KARMELE: Askotan gogoratu izan naiz honekin guztiarekin eta...

MATTIN: Errua ez daukat ez nik, eta hondoratu ninduen kronika zakarra idatzi zenuen, baina maite zaitut oraindik.

KARMELE: Zergatik joan zinen? Hilda zeundela uste genuen hasieran, baina gero zure idatziak iristen ari zirenean, ba orduan denok...

MATTIN: *(Mozten dio.)* Arnasten jarraitzen badugu ere hilik egon gaitzke.

KARMELE: Mito bihurtu zara, Mattin.

MATTIN: Hori da desagertzeak duen abantaila.

TRENAREN EFEKTUA

ANA: Hemen goian omen da, bigarren portaleko azken solairuan.

NESTOR: Zerbait gertatu bazaio...

ANA: Zaude lasai, Nestor.

NESTOR: Ez dakit non duen burua...

TRENAREN EFEKTUA

MATTIN: Zergatik egin zenuen, ez zintudalako zuk nahi bezala maite?

KARMELE: Mattin, ez nizun minik eman nahi.

MATTIN: Eman zenidan, ordea. Elkarri eman genion mina.

KARMELE: Ez zaitut sekula ahaztu. Zer egin duzu urte hauetan guztietan, bada?

MATTIN: Axola al dizu?

KARMELE: O, Mattin. Mattin.

ATEA KOLPE BATEZ IREKITZEAREN EFEKTUA

NESTOR: *(Harridura eta haserre.)*

Karme!le!

KARMELE: Nestor... Ana?

ANA: Mattin Zulaika!

NESTOR. Halako zerbait susmatu behar nuen.

KARMELE: Nestor...

NESTOR: Segi, segi, ez naiz zuentzat oztopo izango.

ANA: Mattin Zulaika, ai ama! Baina... hemen zaude ezkutuan?

NESTOR: Bizi-bizirik eta nire emaztea besarkatzen.

KARMELE: Nestor.

NESTOR: Goazen, Ana, goazen hemendik!

ATEA KOLPE BATEZ IXTEAREN EFEKTUA

MATTIN: Ia hogei urte eta gero, berriz ere zure bizitza izorratzera etorri naizela dirudi.

KARMELE: Ez kezkatu beragatik.

MATTIN: Zugatik kezkatzen naiz, Karmele.

KARMELE: Zergatik bueltatu zara?

MATTIN: Ez naiz sekula joan.

KARMELE: Neure bizitzara... Zergatik bueltatu zara orain, hain justu, Mattin?

MATTIN: Bihar zure urtebetetzea delako.

KARMELE: Gogoan duzu...

MATTIN: Berrogei urte.

KARMELE: Eta elkar ikusi gabe... ia hogei urte.

MATTIN: Zorionak zuri. Hemen zure oparia...

KARMELE: *(Ikaratuta.)* Ez, Mattin, ez!

ATAL BUKAERAREN MUSIKA

